

KUDEATZAILEAZ EUSKALTZAINDIAREN ERABAKIA

Ezaguna da azken hogei urteotan Euskaltzaindiak izan duen hazkundera, bai eskaintzen dituen zerbitzuengatik, bai batzordeen lanengatik eta abar. Gogora dezagun, besteak beste, indarrean dagoen Arautegiak ez dituela batzordeak aipatzen. Aski da, halaber Akademiaren argitalpenen zerrenda luzea edota Euskaltzaindiaren aurrekontuak berak ikustea. Oso bestelakoa da Akademiaren oraingo egoera, lehen ez zituen edota beste neurri bateko eskakizunei eta erronkei erantzun behar dielarik.

Hazkunde horrek asko korapilatzen du Euskaltzaindiaren egunoroko ibilbide. Zinez erakundera gainditzeko eta haren lana itozteko arriskuan jarri du.

Nabarmena da egoera honetan pertsona bat behar dela, eginkizun akademikoak bete gabe, administrazio lan guztien ardurua nagusia hartuko duena. Horregatik, honako proposamen hau egiten du Zuzendaritzak:


Idazkariordea dena izan dadila pertsona hori. Orain arte izan dituen eginkizunez gainera, erakundearen kudeatze orokorraraz arduratuko da, gai eta erabaki akademikoetan sartu gabe. Zuzendaritzarekin eta osoko batzarrarekin idazkariaren orde- egongo da harremanetan aldioro, Akademi alorrean inolako geldiuenerik ez eragozpenik izan ez dadin. Bera izango da, gainera. Euskaltzaindiak Herri-Aginteeekin eta beste erakundeekin dituen harremanen erantzule nagusia.

Idazkariorde-kudeatzailea eragileekin, gehienbat ekonomia eragilearekin eta eragile teknikariarekin, arduratuko da lan eta harremanez. Zuzendaritzaren agindupean orohar eta idazkariaren eta diruzainaren irizpidea eta oniritzia jarraituz.

* * *

Bilbon, 1995.eko ekainaren 30an proposatua eta, Donostian, 1995.eko uztailearen 28ko hileroko batzarrean onartua.

EUSKALTZAINDIA



Euskaltzaindiak 1995eko uztailaren 28an onartua